

*Kontsumo arduratsu eta iraunkor baten alde*

## **EROSKI-K PAPEREZKO POLTSA BERRI BAT ATERA DU, ERABILERA BAKARREKO PLASTIKOZKOAREN ORDEZ**

- Poltsa berriak paperezkoak izango dira, eta FSC® zigilua izango dute (Forest Stewardship Council); horren bitartez, ziurtatzen da paperaren zuntza iturri arduratsuetatik datorrela
- Kooperatibak pixkanaka beste bi alternatiba aterako ditu, konposta daitezkeen poltsak eta poltsa berrerabilgarriak, materialaren %55 baino gehiago plastiko birziklatua dutenak
- EROSKIk lehen bezala jarraituko du plastiko birziklatuz egindako errafiazko poltsa ekologiko berrerabilgarria izaten, bai eta telazko elkartasun poltsa ere, berrerabilgarria izateaz gain etekinak ematen baititu elkartasun kausetarako
- EROSKIren helburua da 2025erako gaur egun darabiltzan erabilera bakarreko plastikoen tonak behintzat %20 gutxitzea

Elorrio, 2019ko urtarrilaren 14a.- [EROSKI](#)k paperezko poltsa berria atera du, plastikozkoaren ordezeko; horrela, kontsumitzaileak kontsumo ohitura iraunkorragoak hartu ahalko ditu. Paperezko poltsa berriek FSC® zigilua izango dute (Forest Stewardship Council); horren bitartez, ziurtatzen da paperaren zuntza modu iraunkorrean kudeaturiko basoetatik datorrela edo material birziklatua duela eta erabat birziklagarria dela. Eskura egongo dira dagoeneko aste honetan hipermerkatuetan, eta pixkanaka sare komertzial osora zabalduko dituzte.

*"Alternatiba iraunkorragoa da hau, eta ingurumena babesteko konpromisoa hartua dugula erakusten du; horrez gain, gure bezeroen eskaria bete dugu, kanal askotarikoen bitartez iradokizun hori egina baitziguten. Ziur gaude poltsa berriek harrera ona izango dutela gure bezeroen artean, zeren eta iraunkortasunaren gaineko kezka bera partekatzen dugu erosketa arlo guztietan",* esan du EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Paperezko poltsaz kanpo, EROSKIk gero eta soluzio gehiago eta gero eta iraunkorragoak emango ditu, hala erosketa mota guztietara egokitzeko nola ohiko plastikozko poltsak ordezkatzeko. Gauzak horrela, datorren asteetan poltsa konpostagarria aterako du, landare jatorriko material berriztagarri egina, eta zabor organikoaren poltsa gisara ere erabili ahalko da. Plastikozko poltsa berrerabilgarri bat ere eskainiko du, erabat birziklatu ahalko dena eta %55 behintzat plastiko birziklatuz egina egongo dena.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*"EROSKI In konpromiso sendoa dugu ingurumenarekin. Urtero, 4,8 eta 12,7 milioi tona plastiko doaz itsasora, eta, diotenez, itsasoko zaborraren %60-80 plastikoak dira. Gure asmoa da aurrera egitea plastikoak ingurumenean duen eragin ezkorra gutxitzeko eta sektorean dugun lidergoa sendotzeko; horregatik eskaintzen ditugu alternatiba iraunkor berriak. Gure helburua da 2025erako behintzat %20 gutxitzea gaur egun darabiltzagun erabilera bakarreko plastiko tonak",* gogorarazi du EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Pixkanaka aterako dituen soluzio iraunkor berrieekin batera, kooperatibak hor izango ditu lehen ere eskaintzen dituen alternatibak, hau da: errafiazko poltsa ekologiko berrerabilgarria —%70 material birziklatuz egina— eta telazko elkartasun poltsa berrerabilgarria, zeina erraz tolesteko modukoa baita, sakelan edo autoan edukitzeko. Gainera, poltsa mota horrek batu egiten ditu ingurumena eta elkartasuna, izan ere, bera salduta lortzen den dirua elkartasun kausetarako erabiltzen baita.

### **Ingurumenaren aldeko konpromisoa**

Kooperatiba honek konpromiso sendoa du ingurumenarekin; alde horretatik, zenbait ekimenetan dihardu, ingurunean bere jarduerak dakartzan kalteak txikitzeko. Helburuak argiak dira, baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea, bere ingurumen aztarna gutxitzea, hondakinak ekonomia zirkularraren ereduari jarraituz kudeatzea, bioaniztasunari eustea... Eta halaxe jasoak ditu [Osasunaren eta Iraunkortasunaren](#) alde berrituriko konpromisoetan. Iaz aurkeztu zituen konpromiso horiek, eta horien haritik doaz erosketara poltsa iraunkorragoen soluzio berri hauek.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)